

Euskararen plangintza

# Mahainguru hartan erantzun gabeko itaunak (I)

Ekainaren 4ean mahainguru bat egin zen Euskal Telebistan Euskararen Normalkuntzarako Plangintzari buruz. Sei lagunek hartu zuten bertan parte. Amatiño zuzendariarekin batera: Jose Juan Txabarrik, Ibon Sarasolak, Andoni Sagarnik, Inaki Larrañagak, Pako Garmendiak eta Paulo Agirrebaltzategik.

Ez naiz ni inor bakoitzak esan zuena edo esan gabe utzi zuena, bakoitzaren esateko modua ala modurik eza, hemen juzgatzeko. Ikusentzuleek beren eritzia egina dute seguruenik. Nik neuk, mahainguruko partaide gisa, neure erantzukizuna hartzen dut neure gain.

Mahainguruaren zuzendariak adierazi zenez, itaun edo galdera-mordoa gelditu zen telefonoko harietan zintzilika. Eta hara jaulkari ziren hainbat galderak egoki erantzun zitzaizkion, ez, ezin jakin. Telebistan bere eritzia ematera agertzen dena eta kantopik galderak egiten dituen ikus-entzulea egoera desorekatuan aurkitzen diru, edo gutxienez egoera ezberdinean, benetako elkarrizketa sortu ahal izateko. Telebistan agertzen denak bere «alde» dauka, itaunari zermahi erantzun, ikusentzuleak ez daukala ihardesterik eta gezurtatzerik; ikusentzuleak, berriz, bere «alde» dauka, telebista-koak ez duela ikusten ez ezagutzen.

Egoera horretan ez dago beste biderik benetako elkarrizketa bideratzeko, pantailakoaren eta ikusentzulearen artean urrunera abiatutako hitz-trukaketa soila, ondoren hurbilagoetik eta beste erataria elkarrizketa bihurtzea baino. Erantzun gabeko itaunak eta alde batetik bakarrik erantzundako itaunak direla tarteko, mahainguru hartako solasaldia liztaztea egoki eta beharrezkoa zen.

Mahainguruan eskuhartu genuenon aurkako salaketa bat aurrean ipiniz hasi behar dut. Hainbat ikusentzuleri aditu diot, oso kutsu ezkoira, pesimista eta etsipenezkoa utzi zuela mahainguruak, orokorki hartuta. Han eskuhartu genuenetako edonork aitortzeko, telebistara agertu aurretik egindako bileran, kutsu horretatik ihesegitea erabaki genuela denon artean. Agian baten batek bestelako asmorik izango zuen ezkutuan; baina agertu ez zuen inork horrelakorik agertu. Denok geunden ados, itxuraz behintzat, euskararen normalkuntzaren etorkizunari buruz baikortasuna azaldu eta bide irekiak erakutsi behar genuela, oraingo egoeraren azterketa ezberdina izango baguenen ere eta aurrerantzerako nork bere helburuak eta helpideak aurkeztuko bazituen ere. Ez genuen nonbait asmoa burutzea lortu; eta egoera ez ezik, etorkizuna ere iluna gelditu zen nonbait mahainguru hartan, euskararen defentsan eta berreskurapenean saiatzen direnen etsipenerako.

Mahainguru hark utzi zezakeen kutsurik okerrera, horixe. Baina gaitzerdi, inguru baikor, kementsu eta bero batetara erori balitz; ez dago horrelakorik,

ordea. Izan ere, euskararen aldeko herri-mobilizaziorik handienak, ugarienak eta zuzpergariarriak gertatu diren azkenaldi honetan, badira gizarte-sektore batzu, itzal eta eragin handikoak, urotza botatzen dihardutenak eta etsipena zabalzen ari direnak. Agian jokabide jakin batzu zuri-tzearren.

Orain dela hilabete batzu honelako titulua ipini zion euskal idazle batek bere artikuluari: «Euskararekiko etsipena»... «Euskararekiko etsipena ari da gailentzen askoren bihotzetan» esanez hasten da, eta honela bukatzen: «Etsitzen dugun egunean hilko gara». Bitartean, itxaropen-nerako arrazoiak aldarrikatzen saiatzen da, baina artikuluaeren erdi-erdian, zera hau ere aitortuz: «Herrian egin du atzera euskarak». Galdera berehala sortzen zaio noski edonori: Zertarako euskararen aurrerapenak administrazioan, komunikabideetan eta irakaskuntzan, herrian atzeraka egiten baldin badu? Dena dela, nik ez diot lagunduko autoritari ilunak herriaren aldean ipintzen. Eta bere hitzak hartuko ditut oraingo euskararen egoeraren larria funtsean beste nonbait dagoela adierazteko: «Politikok eta agintariek zor diote mezu itxaropentsurik euskaldun izan nahi lukeen herriari». Itxaropena, ordea, mezu baina gehiago sortu egin behar da, herri-mugimendurekiko eta euskararekiko politika itxaropentsu batez.

Eskuartearen, berriz, garai beretsuko egunkariko beste artikulua bat daukat, «Euskara-politikaren porrota» deritzana. Bertan Ramon Labayenek, urtetan Eusko Jaurritzako Kulturako Saiburura eta euskararen politikaren arduradun nagusietako izandakoaren eritziak biltzen ditu. Eritzi horien laburpena besterik ez da tituluan ematen duena. Politika batek porrot egin badu, ordea, politikaz aldatu beharra dago. Eta ez porrotaren erruak herriaren gain bota, zenbait egiteko joera duenez —ez artikulua horren egileak, hala ere—.

Euskararen eta euskaldunon kinka eta krisialdi larri honetan «hilkapanpaia» ez, baina «sukanpaia» jo behar dela esan du batek; oso egoki esana, nere ustez. Bazen, ordea, beste kanpots bat, auzoa egitera, auzotarren batzarrea egitera deitzen zuena, beren arteko arazo nagusienak eztabaidatzeko eta argituzeko. Auzokanpaia beharrezkoa dela uste dut, sukanpaiaren ondoren.

Auzo-batzarre hori egin bitartean, eta telebistako mahainguruan hainbat galdera telefonoharian gelditu zirela eta, burura ezazu, beste aukera bat eman nahi izan ziela Amatiñok, beren kezka eta galderak ipini zitzaizkion eta erantzunak jaso... Eskerrik asko, Amatiño!


Mahainguru ez zen, jakina, jendaurrekoa izan, astearteetako ordua hartua zegoelako! Mahaingurukoaren eta galderagileen arteko ezkutuko «elkarrizketa» izan zen. Bai galderek eta bai

erantzunek herritar guztientzat edo gehienentzat beren jakingarritasuna zutelakoan, batenbatek denak grabatu zituela burura ezazu... Horra horien transkripzioa ondoko artikulua sail honetan emana.

Ikusiko denez, mahainguruko gehienak (?) aparte gelditu ziren galdera horietan erantzutean, nahiz eta han bertan egon eta guztiei zuzendu ikusentzuleek beren itaunak. Egia esan, batek bakarrik monopolizatu zituen erantzun guztiak. Halaberharrez! Baina Amatiñok ere bere parte nabarmena eduki zuen, ikusentzuleen azalpen-itaunak labur erazteko. Erantzuleri ez zion eragozpenik eta trabarik jarri, beraren iritzia agertu ahal izateko. Dena dela, jabeturik dago erantzulea, bere erantzunak gehienetan luzeegiak eta sarritan katramilatuegiak izan zirela. Barka, ikusentzuleok! Agian orain paperean argixeago egongo dira.

Honako gai hauek erabili ziren Euskal Telebistako «ezkutuko» mahainguru hartan: denak euskararen normalkuntzarako plangintzaren inguruan.

II. Herri-erakundeak eta kultur politika. III. Euskararen plangintzarik ba ote? Funtsezko baldintzak. IV. Herriaren batasuna, Euskal Herri hau euskaldun-



tzeko. V. Elebitasuna ala euskararen berreskurapena? Plangintzaren helburua. VI. Alderdi politikoaren erantzukizunak. VII. Eralismoaren eta utopiarren artean: Idealismoa eta militantzia. VIII. Erradikalismoaren arrazoiak euskararen defentsan. IX. Euskara eta euskalkiak: Euskararen arbola bakarra. X. Eus-

kararen erabilpena: Plangintzaren goiburua.

Banan banan emango dira horien inguruko kezak, galderak, protestak, gogoetak, erantzunak mahainguru «ezkutu» hartan parte-hartzerik izan ez zuten eta orain irakurtzeko aukera eta pazientzia izango dutenentzat.

Paulo AGIRREBALTZATEGI

## BA DATOR MILIOIEN ZERRENDA.